

Ebazpena: R6/2021
Espedientea: 16/2009

Gasteizen, 2021eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak, Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatuta, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

D SAK, S SAREN, K SLEREN eta SU SAREN oinordeko gisa Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) aurka planteatutako betearazte-intzidenteari buruz, 16/2009 gatazkari buruzko 8/2012 Ebazpenari dagokionez.

I. AURREKARIAK

1.- ZAEAK, K SL eta SU SA erakundeek SO SA erakundearekin 2004 eta 2005 urteetan egindako eragiketa lotuei dagokienez hasitako ikuskapen-jarduketan barruan, zeinak lehenengoan jabetzako markak azkenari lagatzean baitzetzaten (batez ere honako marka hauek: C, K, G, KP, S, U, US, A, E, L), 2009ko azaroaren 6an honako erreferentzia hauek zituzten eragiketen merkatu-balio normala zehazteko erabakiak eman zituen: VNM 20/08 eta 21/08 (2004. urtea) eta VNM 24/08 eta 25/08 (2005. urtea).

ZAEAK balorazio-erabaki horiek hartu zituen konparagarritasun-azterketa bat egin ondoren, eta honako hauek hartu zituen kontuan: i) H&C aholkularitza-enpresaren txosten bat, 2004ko urtarrilekoa; ii) zergapekoaren beraren txosten bat, marken balorazio-testei buruzkoa; eta iii) K aholkularitza-enpresaren 2002ko urriaren 31ko txosten bat.

Txosten horietan oinarrituta, ZAEAk “prezio aske konparagarria” erabiltzea baztertu zuen marken lagapenaren eragiketa lotuak baloratzeko metodo gisa, eta “emaitza banatzeko” metodoa onartu zuen, eragiketaren baterako emaitza erlazionatutako alderdien artean banatuz, kontuan izanik hartutako arriskuak, inplikaturako aktiboak eta horietako bakoitzak betetako eginkizunak.

Aktiboen eta betetako eginkizunen baterako balorazioa urteko ahalegin ekonomikoaren arabera kalkulatu zen; alde batetik, aurkeztutako marken urteko balio ekonomikoa, eta, bestetik, merkaturatze-fasean jasandako gainerako gastuak kontuan hartu ziren.

Metodo horren ondorio gisa, balorazio-akordioek marken lagapenaren merkatu-balioa zenbatetsi zuten: salmenten zenbatekoaren % 4a.

2.- 2009ko azaroaren 18an, GFAk ZAEAREN aurkako gatazka bat planteatu zuen Arbitraje Batzordean. Gatazka horretan –S erakundearen ikuskapen-eskumena ZAEARI zegokiola eztabaidatu gabe– zalantzan jartzen zen eskumen horretan oinarrituta erakunde horrek bere kabuz (GFAREN koordinaziorik edo lankidetzarik gabe) finka ote zezakeen eragiketa lotuen balorazioa. Izan ere, doikuntza horren alde bikotasunak foru ikuskapen-eskumeneke zergapekoei ere eragiten zien, eta, GFAK lehen doikuntzari edo bigarren doikuntzaren kalifikazioari buruzko beste irizpide bat izan zezakeenez, lotura-perimetroko erakunde guztien gainzergapetzea eragin zezakeen.

3.- Arbitraje Batzordeak, Ekonomia Itunaren 4. artikuluan jasotako lankidetzaprintzipioa aipatuz, gatazka ebatzi zuen (2012ko uztailaren 2ko 8/2012 Ebazpena, gaur egun irmo bihurtu dena), eta honako hau adierazi zuen: “ZAEAK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekoari lotutako S SA eta K, SL eta S, eta U SAREN artean egindako eragiketei buruzko informazioa trukatzeko betebeharra dute, baita balizko desadostasunak konpontzeko ahalegina egitekoa ere, fedonez eta lankidetz-espirituarekin, erakunde horien guztien gainzergapetzea gerta ez dadin”.

4.- 8/2012 Ebazpena betearazteko, GFAk 2012ko abenduaren 18ko balorazio-proposamen bat bidali zion ZAEARI 2014ko urtarrilaren 3an.

GFAREN proposamenak honako informazio gehigarri hau hartu zuen kontuan: i) marken erabileraren lagapen-kontratu bat, TM SL eta CF SPAREN artean sinatua, 2009ko urriaren 9koa (salmenta garbier kanona % 6an ezartzen zuen); ii) transferentzia-prezioei buruz Dk emandako 2009ko dokumentazioa; iii) K, KS eta C marken balorazio-txosten bat, 2010ean I aholkularitza-enpresak egina; iv) 2003ko urtarrilaren 1ean CA eta Sk sinatutako kontratua; eta v) K, KS eta C marken gainean eraturako ondasun higigarrien hipoteka.

Egindako konparagarritasun-azterketan oinarrituz, GFAk ondorioztatu zuen baliozko konparagarriak daudela; beraz, “prezio aske konparagarria”ren metodoa erabiltzea hautatu zuen, eta ZAEAK aplikatutako “emaitza banatzeko” metodoa erabiltzea baztertu.

“Prezio aske konparagarria”ren metodoa bai barne-konparagarrientzat (TMCren eta CA eta Sren artean sinatutako kontratuetatik eratorritakoak) bai kanpo-konparagarrientzat (K eta L) aplikatzearen ondorioz, GFAk ondorioztatu zuen marken lagapenaren merkatuko ordainsaria salmenta garbier zenbatekoaren % 6koa zela, eta bat zeterren lotutako alderdien artean sinatutako marken lagapen-kontratuetan adostutako transakzio-balioarekin, zeina salmenta gordinen % 6koa baitzen, goiz ordaintzeagatiko sustapen-deskontuak, kopurua, rappelak eta marketina kenduta baina penalizazio bat erantsita –marken lagapen-hartzailearentzako hobaria– Sren olio-salmenten EBITDAk ehuneko jakin batzuk gainditzen ez zituenean.

5. 2014ko maiatzaren 13an, ZAEAK marken lagapen-kontratuak eskatu zizkion GFARI. GFAk 2014ko maiatzaren 23an eman zituen.

6. 2014ko irailaren 24an eta azaroaren 12an, GFAk transferentzia-prezioei buruzko bere proposamenari erantzun bat emateko eskatu zion ZAEARI.

7. 2014ko azaroaren 20an, zergapekoak eta ZAEAK akordio-akta bat sinatu zuten 2004an eta 2005ean K eta Sk SCri egindako marka-lagapenen balorazioari buruz.

Akta horretan, ZAEAK konparagarritasun-azterketa bat jasotzen zuen, lagatuko marken ezaugarriak, onartutako eginkizunak (arriskuak), kontratuak, egoera ekonomikoa eta merkataritza-estrategiak barnean hartzen zituen, eta ondorioztatu zuen baliozko konparagarriak ez zegoenez balorazio-metodo zuzena “emaitza banatzeko” metodoa zela.

ZAEAREN aktan, halaber, GFAk eta zergapekoak ekarritako kanpoko konparagarrien aplikazioari buruzko azterketa bat egin zen, eta kontratuetan jasotako bi inguruabarren arabera doitu ziren:

- a) SCri hobariak aplikatzea (marken lagatzaileentzako penalizazioak), olio-salmenten gaineko EBITDAk ehuneko jakin batzuk ez gaitzeteagatik.
- b) Marketin-kanpainetako gastuak lagatzaileei esleitzea, marketin-sailaren kostuen ehuneko jakin bat esleitzen zaien proportzio berean (GFAk egiten zuen bezala), eginkizun hori betetzeko azpiegitura propiorik ez zutelako.

Adierazitako bi noranzkoetan doitutako konparagarri horiek aplikatu zirenez, ZAEAK honako hau ondorioztatu zuen: marken lagapenagatik kanonen merkatu-balioa 2004an % 4,2koa zela (LN oinarritik lortutako tartearen laginarekin bateragarria); eta 2005ean % 2,4koa, zeina % 4 igo baitzen Kren laginarekin bateragarria izateko.

Azken batean, ZAEAK ondorioztatu zuen “emaitza banatzeko” metodoa erabiltzeak nahiz “prezio aske konparagarria” erabiltzeak (GFAREN balorazio-proposamenaren konparagarriari aplikatuta) merkatu-balio bera zehazten zutela.

8. 2014ko abenduaren 19an, ZAEAk GFARI helarazi zion berak SC SAREkin sinatutako akordio-akta.

9. 2015eko urtarrilaren 19an, GFAk betearazte-intzidente bat planteatu zuen Arbitraje Batzordean, eta adierazi zuen ez zegoela ados ZAEAk 8/2012 Ebazpena betearazi zuen moduarekin.

GFAk azaldu zuen ZAEAk egindako erregularizazioak kalte egin ziola, bere eskumeneko erakundeen diru-sarrera murrizten zuelako; horren ondorioz, 2.700.000 euro gehi 5.000.000 euroko berandutze-interesak itzuli behar ziren, eta 4.000.000 eurotik gorako oinarri negatiboen eta kreditu fiskalen gehikuntzak.

Bere iritziz ZAEAREN erregularizazioak egindako akatsa justifikatzeko, bere balorazio-proposamenaren konparagarritasun-azterketa aurkeztu zuen. Azterketa horretan ondorioztatzen zen marken lagapenengatiko ordainsariak salmenta garbien % 6koa izan behar zuela.

ZAEARI alegazio-izapidea eman ondoren, hark adierazi zuen Arbitraje Batzordearen 8/2012 Ebazpena bete zuela, bere Aktan GFAk aurkeztutako dokumentazioa jaso eta aztertu zuelako eta partzialki bete zuelako, balorazio-metodoa aldatuz, nahiz eta azkenean hark kalkulaturako merkatu-balioa ez baizik eta beste bat izan emaitza.

Arbitraje Batzordeak 2015eko ekainaren 19ko A1/2015 Ebazpena eman zuen. Ebazpenean, GFAk planteaturako betearazte-intzidentea baztertzea erabaki zuen, zeren eta, garai hartan indarrean zegoen araudiaren arabera, Batzordeak ez baitzuen esleituta betearazte-intzidentek ebazteko eskumenik, eta, horrenbestez, ez baitzegoen bere Araudian horretarako prozedurarik.

10. Betearazte-intzidentea Arbitraje Batzordeari planteatzearekin batera, GFAk errekerimendu bat bidali zion ZAEARI Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/98 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, errekurtsua aurkeztu aurretik, eta Drekin formalizatutako eta sinatutako akordio-akta deuseztatzeko eskatu zion. Ondoren, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuen Madrilgo Auzitegi Nagusian, 353/2015 Prozedura eragin zuena. 2016ko ekainaren 9an, ezespene-epaia eman zuen Auzitegi Nagusiak, ulertu baitzuen GFAk ZAEAK ez jarduteagatik aurkeztutako prozedura (16/2009 gatazkari buruzko 8/2012 Ebazpenaren ez-betetze gisa planteatzen zena) ez zela egokia arbitraje-araudiko hutsune bat konpontzeko.

11. 2017ko uztailaren 18an, GFAk desadostasun-aktak hasi zituen, eta marken lagapenaren balioa salmenten zenbateko garbiaren % 6an kuantifikatu zuen.

12.- 2017ko abuztuaren 4an –abenduaren 28ko 10/2017 Legearen araberrako Ekonomia Itunaren aldaketa oraindik indarrean ez zegoenean (horretan esleitu zirtaion Arbitraje Batzordeari betearazte-intzidentek ebazteko eskumen berria eta prozedura berezi bat eratu zen horretarako)–, D SAK betearazte-intzidente bat planteatu zuen Arbitraje Batzordean, ZAEAK eta GFAk 8/2012 Ebazpena betearazi zuten moduren aurka. Argudiatu zuenez, K eta S SAK SC SAREN alde egindako eragiketetan marken lagapen-prezioaren balorazioan bi Administrazioak ados ez jartzeak gainzergapetzea sortzen zien lotura-perimetroa osatzen zuten erakundeei.

13. 2017ko irailaren 22an, GFAk likidazioak egin zituen, eta bere desadostasun-akten irizpidea berretsi zuen.

14. 2017ko urriaren 25ean, betearazte-intzidentearen planteamendua errepikatzeke idazkia aurkeztu zuen D SAK Arbitraje Batzordean.

15. 2018ko maiatzaren 14an, ZAEAk alegazio-idazkia aurkeztu zuen betearazte-intzidentea ez onartzeko eskatzeko, eta honako hau adierazi zuen: Batzordeari halako intzidenteak ebazteko eskumena ematen zion Ekonomia Itunaren aldaketa –zeina abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ezarri baitzuen– ez zela atzeraeraginez aplikatzekoa hura indarrean jarri baino lehenagoko prozedura bati, prozedurazko arau bat zelako eta Arbitraje Batzordeak aurrez ebatzi zuelako ez zuela auzi hartaz arduratzeko eskumenik. ZAEAk zera eskatu zion Batzordeari: i) aintzat har zezala ZAEaren jarrera epaitu zutela bai Arbitraje Batzordeak berak eta bai Madrilgo Auzitegi Nagusiak; ii) kontuan har zezala ZAEAk 8/2012 Ebazpena bete zuela GFArekin fede onez akordio bat lortzen saiatu zelako; eta, azkenik, iv) aintzakotzat har zezala GFAk aipatutako gainzergapetzea GFAk bakarrik eragin zuela.

16. 2018ko maiatzaren 15ean, GFAk alegazio-idazkia aurkeztu zuen, honako hau adieraziz: i) ZAEaren jarduteko moduak ez zuela izan 8/2012 Ebazpenak eskatutako ardura eta fede ona; ii) zergapekoaren jarduteko modua –ZAEarekin akordio-akta bat sinatuz eta GFArekin desadostasun-akta sinatuz– ez zettorrela bat ondorengo ekitaldietan GFaren balorazioa onartzeko erakutsi zuen jarrerarekin; iii) ZAEaren jarduteko moduak –zergapekoarekin akordio-akta bat sinatuz– ez ziola GFARI aukerarik ematen bestela jarduteko administrazioen artean egon beharko lukeen elkarlanaren eta koordinazioaren esparruan; eta v) marken lagapen-eragiketen merkatu-balorazio egokia, “lehia askeko prezioa” erabiliz zehazten zena, GFAk egiten zuena zela.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Arbitraje Batzordearen eskumenari buruz.

Eskumena da ekintza edo antolamendu publikoaren eremu jakin bati dagokionez organo edo erakunde bati aitortzen zaizkion ahalen eta eginkizunen multzoa, eta organo edo erakunde horrek bere egintzak eremu horretan garatu eta eman ditzake. Administrazio-jarduketara gaitzen eta legitimatzen duen aurretiazko eskakizuna eta oinarria da eskumena.

Hala, administrazio-zuzenbidearen esparruan, eskumenaren kontzeptua erabiltzen da gaitasunaren kontzeptuaren orde; hau da, organo edo erakunde publiko bakoitzaren gaitasunaren neurria.

Auzitegi Gorenak doktrina hori ezarri zuen 1983ko apirilaren 15eko epaian, eskumen gisa definitu baitzituen *“ordenamendu juridikoak erakunde edo administrazio-organo bati esleitzen dizkion eginkizunak”*.

Hortaz, eskumena egikaritzeko, alde aurretik eskumena esleitu behar zaio administrazio-organo jakin bati. Alde horretatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 8.1 artikulua adierazten du eskumena berena duten administrazio-organoek baliatuko dutela.

40/2015 Legearen beraren 8.3 artikulua zehazten du esleipen hori xedapen baten bitartez egin behar dela. Eskakizun logiko bat da, Konstituzioaren 103. artikuluan ezarritakoaren ondorio dena; eskakizun horrek administrazio-eskumenak ezin direla anbiguo eta mugagabeak izan ulertarazi nahi du, baizik eta esleipen-arau zehatz bat behar dela, eta, hori gabe, arauan aurreikusi gabeko eskumen bat egitatez administrazio batek bere buruari esleitzea erabateko deuseztasunaren sortzaile gisa uler daitekeela (AGE, 1993ko ekainaren 23koa). Arbitraje Batzordeak 2015ean ebatzi zuen (2015eko ekainaren 19ko A1/2015 Ebazpena) garai hartan indarrean zegoen araudiaren arabera ez zeukala eskumenik GFAk 2015ean planteatutako betearazte-intzidentea ebazteko.

Gerora bere ebazpenen betearazte-intzidentek ebazteko eskumena esleitu izanak –Ekonomia Itunean *ex novo* sartu zen eskumena hura aldatzen duen abenduaren 27ko 10/2017 Legearen bidez– ez du aukerarik ematen eskumen-

esleipen hori atzeraeraginez zabaltzeko aldaketa hori indarrean sartu aurretik sortu eta ebatzitako desadostasun batera itzultzeko.

Bigarrena.- Betearazte-intzidentea ebazteko prozedurari buruz.

2015ean indarrean zegoen araudian Arbitraje Batzordeak betearazte-intzidentek ebazteko eskumenik ez izateak, logikoa denez, Batzordearen Araudian betearazte-intzidenteen izapidetzea arautzen zuen prozedurarik ez egotea justifikatzen zuen.

Abenduaren 27ko 10/2017 Legeak betearazte-intzidentea sartu zuen Ekonomia Itunaren 68. artikuluan, honela:

“Bat. Hauek dira ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura bereziak: prozedura laburtua, ondorioak zabaltzea eta betearazte-intzidentea.

(...)

Lau. Betearazte-intzidentearen bidez, ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura batean alderdi izan denak Arbitraje Batzordearen ebazpena betearazteko neurriak eskatu ahalko ditu baldin eta ukitutako administrazioak ez badu ebazpena bere horretan betearazi”.

10/2017 Legeak ez zuen xedapen iragankorrik jaso betearazte-intzidentea aplikatzeko, prozedura laburtu jakin batzuetarako ez bezala.

Horrela, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legera jo behar da 10/2017 Legeak sartutako betearazte-intzidentearen prozedura berriaren araubide iragankorra zein den zehazteko.

39/2015 Legeak Hirugarren Xedapen Iragankorreen arautzen du gai hori, eta honako hau xedatzen du:

“a) Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko lege hau, eta, beraz, aurreko araudiari jarraituko zaio halakoetan.

d) Lege hau indarrean jartzean betearazteke dauden egintza eta ebazpenek, betearazpenari dagokionez, eman zirenean indarrean zen araudiari jarraituko diote.

e) Dagozkion lege- eta erregelamendu-xedapenetan aurreikuspen espresurik ez bada, administrazio-prozeduraren arloan sortzen diren zuzenbide iragankorreko arazoak aurreko puntuetan ezarritako printzipioen arabera ebartziko dira”.

Horren arabera, ezin zaie aplikatu 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean erantsitako betearazte-intzidentearen prozedura ZAEAk Lege hori indarrean jarri aurretik ebazpen bat betearazteko betearazitako egintzei.

Hirugarrena.- Ikuskapen-eskumena duten Administrazioen artean lotura-perimetroko zergapekoei dagokionez desadostasuna sortzeari buruz, administrazio horien gainzergapetzea eragin baitezake.

GFAk 2015ean planteatutako betearazte-intzidentean, GFAk nahi zuen Arbitraje Batzordeak erabakitzea ea ZAEAk fede onez jardun ote zuen elkarlanean GFArekin akordio bat lortzen saiatzeko foru-eskumeneko enpresek estatu-eskumeneko enpresari markak lagatzearen balorazioari buruz.

Horren guztiaren atzeko balorazio-desadostasuna zen ea merkatu-balioa salmenten zenbateko garbiaren % 6koa ote zen (“prezio aske konparagarria”ren metodoaren arabera zehaztuta), edo, aitzitik, % 4koa ote zen (“emaitza banatzeko” metodoaren arabera zehaztuta).

D SAK 2017an planteatutako betearazte-intzidentek eta GFAk 2015ean planteatutakoak xede bera zuten, nahiz eta horretan administrazio jarduleak –

zergapekoa denak– ez duen alegatzen Administrazioen arteko elkarlanik eza, baizik eta haien arteko adostasunik ezak sortzen duen gainzergapetzea.

Espedientearen puntu honetan, garrantzia galdu du balorazio-metodoak “prezio aske konparagarria” edo “emaitza banatzekoa” izan behar ote duen jakiteak; izan ere, ZAEAREN kalkuluen arabera, hobariak SCren olio-salmenten EBITDAREN arabera doituz gero eta marketin-gastuen zati bat lagatzaileei esleituz gero, berdina da markak lagatzeagatik haiei esleitzen zaien diru-sarrera.

Beraz, ez dirudi 2017an D SAK aurkeztutako betearazte-intzidenteak 8/2012 Ebazpenaren betearazteari buruzko beste desadostasun bat planteatzen duenik, GFAK 2015ean aurkeztutako eta 2015eko ekainaren 19ko A1/2015 Ebazpenaren bidez ebatzitako betearazte-intzidentean planteatutakoaz bestelakoa.

Hala ere, kontuan hartuz GFAK 2015ean planteatutako betearazte-intzidentean ZAEARI alegazioen izapidea eman zitzaiola, baina ez zergapekoari, nahiz eta jakin hark ZAEAREKIN akordio-akta bat sinatu zuela (eta, beraz, ez dirudi zentzurik duenik ZAEAK 8/2012 Ebazpena betearazi zuen moduarekin ados ez egoteak) eta bere alegazioek ez luketela ezertan aldatuko A1/2015 Ebazpenaren zentzua (Arbitraje Batzordearen eskumenik ezari dagokionez, nolana ere, berak erabakiko lukeelako), nahitaez planteatu behar da ea Dk 8/2012 Ebazpenaren betearazte-intzidente bat aurkezteko ahalmenik ote duen hura betearazteko moduarekin duen desadostasunean oinarrituta.

Ez da legitimazio-arazo bat, ez eta epez kanpo jarduteagatiko arazoa ere; desadostasuna 2015ean planteatu zuen GFAK, eta Arbitraje Batzordeak ebatzi zuen, garai hartan indarrean zegoen prozedura-araudiaren eta eskumen-esleipenaren arabera.

Gainera, aintzat hartuta ZAEAK 8/2012 Ebazpena 2014an betearazi zuela, D SAK 2017an planteatutako betearazte-intzidentea ezin uler liteke GFAK Ebazpena

betearazi duen moduarekiko desadostasun gisa ez bada. Baina aipatu behar da 8/2012 Ebazpena sortu zuen gatazkan GFA zela, hain zuzen ere, ZAEAREN prozeduran parte hartzeko aukera eskatzen zuena; asmo hori, ebazpenaren ondoren, 2012an egin eta ZAEARI bidali zion balorazio-proposamen baten bidez bete zen.

Beraz, badirudi orain D SAK Arbitraje Batzordean planteatzen duen desadostasuna foru-aktarekin dela gehiago GFak 8/2012 Ebazpena betearazi duen moduarekin baino, eta gai horren oinarrian ez dago eskumenei buruzko gatazkarik: bide ekonomiko-administratiboan eta, hala badagokio, administrazioarekiko auzien bidean planteatu behar den funtsezko gai bat da.

Beraz, Arbitraje Batzorde honen iritziz, uler daiteke orain D SAK betearazte-intzidente gisa planteatzen duen auziari aplikagarria zaiola 2015eko ekainaren 19ko A1/2015 Ebazpenean gauza epaitutzat jotzea.

Laugarrena.- 8/2012 Ebazpena betetzeari buruz.

Zergapekoak Auzitegi Gorenak 17/2012 errekursoari buruzko 2013ko apirilaren 11ko Epaian emandako doktrina aipatzen du betearazte-intzidentea nahitaez onartzeko argudio gisa.

Epai horrek ebatzi zuen Arbitraje Batzordeak forma-akats bat zuen gatazka negatibo bat onartzeko beharra, beti zergapeko bati eragiten dion administrazioen arteko desadostasun bat ebatzi nahi baitzen.

Doktrina hori ZAEAREN eta GFAREN artean sortutako gatazkara eramatea ezin da planteatu betearazte-intzidenteari dagokionez lotura-perimetroko enpresei lotuta (D SA, besteak beste). Izatekotan, jatorrizko gatazkari dagokionez (16/2009) planteatu liteke, eta hura ebatzi zen Administrazio demandatzaileak administrazio demandatuaren prozeduran parte hartzeko agindua emanaz.

16/2009 gatazkari buruzko 8/2012 Ebazpenak GFAk ZAEAREN prozeduran parte hartzeko eskubidea zuela onartu zuen, eta parte-hartze hori Administrazioek beren artean elkarlanean aritzeko betebeharrak gisa egituratu zen: informazioa trukatzeko eragiketa lotuen balorazioari buruzko irizpide komun bat lortzen saiatzeko, lotura-perimetroko erakunde guztien gainzergapetzea saihesteko.

8/2012 Ebazpenak egiteko betebeharrak ezarri ziren Administrazioei, baina ez ziren ezarri, ezin baitzuen, emaitzaren betebeharrak. Fede onez akordio komuna lortzeko elkarri laguntzera behartzen zituen, baina ez zituen behartzen akordio hori lortzera.

D SAK aurkeztutako betearazte-intzidentek, nolana ere, ez du planteatzen administrazioen arteko elkarlanik eza, baizik eta haien arteko akordiorik eza gainzergapetzea saihesteko.

Baina, esan bezala, hori ez zen 8/2012 Ebazpenaren zentzua, eta ezin zuen inor behartu akordio bat lortzera.

Kontuan hartuz GFAk ZAEARI balorazio-proposamen bat bidali ziola; kontuan hartuz ZAEAK marken lagapen-kontratuei buruzko dokumentazioa zabaltzeko eskaera bidali ziola GFARI (kontratu-azterketa konparagarritasun-azterketaren barruan egiteko beharrezkoak ziren) eta hark bidali eta besteak jaso zuela; kontuan hartuz ZAEAK formalizatutako akordio-aktak arrazoitzen zuela zergatik berretsi zen, zergapeko lotuen arteko eragiketak baloratzeko, “emaitza banatzeko” metodoa; eta kontuan hartuz aktak era berean aztertzen duela GFAk bere proposamenaren erabilitako “prezio aske”aren metodoa konparagarri aplikatzea, eta, dagozkion doikuntzekin (olio-salmenten EBITDARI eta foru-eskumeneko enpresei marketin-gastuak egozteari lotutako hobariei buruzkoak), balorazio bera zehazten duela, ezin esan daiteke 8/2012 Ebazpenak berez eskatutako elkarlanik gabe egin denik, nahiz eta aztertutako eragiketarako merkatu-balio bera lortu ez.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

1.- Betearazte-intzidentea ez dela onartzen adieraztea, abenduaren 27ko 10/2017 Legeak egindako Ekonomia Itunaren 68. artikularen aldaketa indarrean sartu aurretik planteatu delako eta Arbitraje Batzordeak A1/2015 Ebazpenean ebatzitako 8/2012 Ebazpenaren betearaztearekin dagoen desadostasun bera izateagatik.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.- Ebazpen hau Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta zergapekoari jakinaraztea.